

Julene Azpeitia

lehiaketa 2019. urtea



Julene Azpeitia lehiaketa



2019. urtea

Argitaratzailea: _____




DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



■
**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

■
*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
KULTURIA SAILA



JULENE AZPEITIA (1888-1980) Zumaian jaio eta Bilbon zendu zen 92 urte zituela. Maistra titulua lortu ondoren, Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen eta, hemendik, Bizkaiko ikastoletara pasatu zen. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “milla bider jaioko banintzake ere, maistra izango nintzake” aipatu zuen behin baino gehiagotan, izan ere, beren bizitzako ardatz nagusiak *umeak* eta *euskara* izan ziren. 1916. urtean Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Senarrarekin batera Mexikora joan zen eta, han, 1918. urtean, euskaraz idazteari ekin zion.

Itsasoz haraindi lau urte eman ondoren, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoko Traña eta Mendiolako auzo eskoletan jardun zuen 1922tik 1936a arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan behar izan zituen: “amaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean...Orain Durango bizi naiz nire senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Esanguratsua da 1962an Euskaltzaindiko Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren izenburua: *Euzkera jasotzea erabaki dogu*. Izan ere, Julenek, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea zuen helburu. Arrate Irratiak emititzen zuen *Oiztik Anbotora* irratsaioan hartu zuen parte, besteak beste, Juan Gallastegi apaizarekin eta Eskarne Aromarekin. Irratian, maistra-lanetan edota idazterako orduan, beti, kezka nagusi bat zebilzion buruan: “nola jardun euskara iraunarazteko eta berau umeengan biziberitzeko?”

1975. urtean, Gabriel Arestik proposatuta, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen Julene Azpeitia. Bera izan zen lehen emakume euskaltzain ohorezkoa, eta gero, Tene Mujika debarra eta Madeleine Jauregiberri zuberotarra gehitu zitzaizkion..

Julene Azpeitiak argitaratu zituen liburuak: *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* (1920); *Irakurri, Matte* (1932); *Amandriaren Altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974).

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2019. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1424-2014

2019ko azaroa

HITZAURREA..... 9

Ane Abanzabalegi Areitio
Herrigintza batzordeko zinegotzia

IPUINAK

ARMAIRU MISTERIOTSUA 13

Arene Sarrionandia Etxebarria

INDARTSUA NAIZ, BAI... 19

Nora Intxaurbe Morales

NOR DA NOR? 29

Aetz Sampedro Landa

INDARRARENA..... 35

Maddi Loizate Izurieta

TIK-TAK... 1, 2, 3?..... 47

June Azkarate Irigoras

KILKERREN AFONIA..... 57

MariJoxe Azurtza Sorrondegi

OLERKIAK

PAPEREZKO HEGAZKINA	67
Paule Martinez Cerro	
ZERGATIK ILARGI?	71
Ixone Asategi Narbaiza	
ZURE BEGIEN BIDAIA	75
Nahia Barturen Negro	
BEHINOLA HERIOTZA JAIKI ZEN EGUN BATEZ.....	79
Nerea Irasuegi Moreno	
BURKO GAINEAN	85
MariJoxe Azurtza Sorrondegi	

BERTSOAK

MUNDU INJUSTUA	91
Maddi Elortza Mendiburu	
OLATUARENAK	95
Ander Sarriugarte Garcia	

hitzaurrea

1983. urteaz geroztik dugu esku artean *Julene Azpeitia Ipuin, Olerki eta Bertso lehiaketa* Durangon. Jaiotzez Durangarra izan ez arren, Julenek lan handia egin zuen gurean, bai literaturan bai euskalduntzearen alde. Izan ere, bere helburua hori guztia hedatzea zen ipuin, irratsaio eta eskolen bidez.

Julene Azpeitia lehiaketa hasiera batean Durangoko umeei zuzenduta egon bazen ere, gerora, gazte eta helduei zuzendutakoa ere bada.

Aurten, 1300 lan aurkeztu dira, eta horietatik 310 izan dira epaimahaiaren eskuetara iritsi direnak. Emakumeak duen presentzia ere goraiпатzekoa da, %62a izan baita.

Honen guztiaren atzean, Durangoko ikastetxeek egiten duten lana dago. Nabarmentzekoa benetan.

Eskertzekoa eta zoriontzekoa da, baita ere, Imanol Larrinagak beste behin egin dituen marrazki zoragarriak.

Denok ez gara idazle jaio, denok ez dugu zertan ipuin bat idazten jakin behar. Bakoitzak bere aportazioa egin dezake lehiaketa honetan, ipuin, bertso edota olerki bat idatziz. Jakin badakigu irakurtzeak mundua zabaltzen digula, amastera eramaten gaituela. Beraz, goza dezagun honekin guztiarekin eta has gaitezen denok amesten.

Ane Abanzabalegi Areitio
Herrigintza batzordeko zinegotzia

julene azpeitia
lehia keta
2 0 1 9

Ipuinak



Arene

Sarrionandia Etxebarria

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

Armairu misterioetsua



Apirila zen, udaberria, eta amak armairu txiki bat oparitu zidan nire urtebetetzerako, nire arropak gordetzeko. Marroi kolorekoa zen, ni baino pixka bat handiagoa eta bi ate zituen. Ate batek ispilu handia zuen, ate guztia betez. Horrelako armairuan nire arropa guztiak gordeko nituen, baita nire sekretutxoak ere, eta ispiluan elegante apaindu etxetik irteteko. Nire armairu kuttuna bihurtuko zen.

Egunak pasatu ziren eta zerbait pasatzen zela susmatzen nuen baina ez nekien zer. Egun batean, armairua bakarrik zabaldu eta itxi egin zen. Momentu horretan, haizearen eragina izango zela pentsatu nuen, eta ez nion garrantzirik eman. Ateak ondo itxita zeudela begiratu eta ospa egin nuen.

Bost egun geroago, gauez, armairua zarataka eta xuxurlaka hasi zen aldi berean. Makina zoroa ematen zuen. Zer arraio? Zer demontre zen hura? Zer ote zegoen barruan? Beldur apur bat bai sentitu nuela. Baina ahaztea erabaki nuen. Nire irudimenak nahasi egingo ninduen, seguru.

Bi egun gehiago pasatu ziren ezer gertatu gabe. Orduan, gero eta gauza misterioitsu gehiago gertatzen hasi ziren. Armairua kolorez aldatzen zen nire gogoaren arabera. Urdina pentsatu eta urdin jarri, berdea pentsatu eta berde jarri, eta pentsatzeari utzi eta marroi jartzen zen.

Hirugarren egunean amak zigortu egin ninduen nire gela ez txukuntzeagatik, eta telefono mugikor gabe utzi ninduen. Ohean etzan nintzen sabaira begira; tripek soinuak egiten zituzten eta buruak milaka buelta pentsamenduekin. Halako batean gogoratu nintzen armairu magiko bat nuela.

Pentsatzen hasi eta, hor zegoen armairua, karta batzuekin, nire zain. Armairua eta ni kartekin jolasten hasi ginen, gehienetan berak irabazten zuen, eta atea zabaldu eta itxi egiten zituen ospatzeko; baina ni hor nengoen, buru gogor, temati, berari irabazi nahian. Noizbait lortu nuen, eta armairua kolore beltzera aldatzen zen, haserre bezala. Txantxa egiten zuen.

Halako batean, amak deitu zidan bazkaltzera joateko. Horregatik ziren nire tripako zaratak. Nik ez nuen joatea nahi, baina ezin nuen aurre egin, bazkaltzeko espagetiak nituen eta gustukoak ziren, izugarri gustukoak. Hori bai, armairuari zin egin nion arin itzuliko nintzela berarengana. Arratsalde osoa jolasten ibili nintzen berarekin, baita gauza goxoak jaten, txaketa politikak probatzen, etxeko lanak egiten...

Baina berriro amak deitu behar! Ezin bakean utzi!

Afaldu ostean, armairuari zerbait arraroa gertatu zitzaion. Egur zati bat jauzi egin zitzaion. Baina pentsatu nuen ez zela garrantzitsua, ez zelako ezer ikusten. Orduan ohean sartu, begiak itxi eta lo seko geratu nintzen.

Hurrengoko egunean goizean, eskolara joan behar nintzen, baina ez nintzen kexatu. Jakin banekien eskolatik bueltan, saltoka eta pozik etorriko nintzela.

Etxera itzultitakoan harrিতuta geratu nintzen. Armairuaren alde bat jauzita zegoen. Pentsatzen hasi eta gauza batekin konturatu nintzen: armairua apurtzen ari bada, ahalik eta gauza posible gehienak eskatu behar dizkiot!

Orduan, eskatzen hasi nintzen, arnasa hartzeko unerik utzi gabe:

- Pelikula bat ikusi nahi dut... bihar munduko egunik alaiena izatea nahi dut ... munduan beste pertsona batzuei laguntzea nahi dut... -esan nion armairuari.


Horrela zerrenda luze bat bete nuen eta armairuari eskatu. Orduan, armairuak hitz egin zidan, ahotz finez:

- Guztira 49 eskaera egin dituzu, azkena falta zaizu, berrogeita hamargarrena.

Nik, berehala, hauxe erantzun nion:

- Azkenik animalia bat nahi dut, maskota bezalaxe maitatzeko.

Armairuak hasieran aurpegi arrarodun *emoji* bat erakutsi zidan ispiluan, baina handik gutxira *emoji* bat barrezka erakutsi zidan.



Ni irrikaz beteta, saltoka hasi nintzen, baina animalia eman zidanean guztiz desagertu zen armairua, betirako.

Nire armairu kuttuna, nire lagun onena zena, desagertu egin zen. Negar batean hasi nintzen, eta horrela bi egun eman nituen triste. Bi egunak pasatuta konturatu nintzen ez zela joan nire armairu kuttuna, baizik eta niri eman zidan animalia bihurtu zela.

Orain maskota nire laguna da, nire kuttuna baina ez dizuet kontatu ze animalia den...

Ipuinak



Nora

Intxaurre Morales

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailan

Kurutziaga Ikastola

Indartsua naiz, bai...



11-19

Dena beltz ikusten nuen, mundua bukatu zela sentitzen nuen.

2012ko otsailaren 29an gertatu zitzaidan, ni jaio eta handik 7 urtera.

Ospitalean nengoen, zorabiatuta itzartu nintzen. Ez nintzen kontziente gertatzen zen guztiaz, asko kostatu zitzaidan begiak zabaltzea, milaka trastu zuri eta gris ikusten nituen. Gainera, dena lauso zegoen. Bat-batean nire familiakoak agertu ziren eta besarkada bat eman zidaten. Beraiek gertatutako guztia kontatu zidaten. Ez nuen ezer ulertzen... zer, nola, zergatik?

13 urteko Aiala izeneko neska naiz, beno laster 14 izango ditut; ilegorria naiz eta milaka orezta ditut. Horrez gain, hankamotza naiz eta azal nahiko zuria daukat. Horrela ikusita ohiko gazte bat ematen dut, baina ez omen naiz oso arrunta, guztiek niri begiratzen baitidate. Zergatia jakin nahi dut, beno, badakit beso bat falta zaidala, ez ditudala ohiko belarriak edo sudurra apur bat zapalduta dudala. Eta zer?

Txikitatik Bilboko Lauro ikastolara joan naiz, baina aurreko urtean dena porrot bat izaten hasi zenez, aurten bizilekuz aldatu gara eta Algortan bizi gara. Aurreko urtekoa kaka zaharra izan zen, izan ere, istripua izan nuenetik, nire lagunik onena den Maite izan zen nire sostengu bakarra, baina, aurreko urtean, Madrilera bizitzen joan izan behar zuen bere amaren lanarengatik. Diru barik geratzeko zorian egon ziren. Oso gogorra izan zen laguna agurtzea. Bera joaterakoan oso bakarrik sentitu nintzen. Asko saiatu nintzen txikitan nituen lagunengana hurbiltzen, baina hurbiltzerakoan barrezka hasten ziren nire aurpegiaz eta gorputzaz. Horrez gain, ikasle talde batengandik burla mingarri asko jaso

nituen, beraiantzako arraroa bainintzen. Eta zer da arraroa izatea?, gizarteko estereotipoetatik kanpo egotea? Ba ni ez nago batere ados, ez dago inor perfektua bizitza honetan. Beno, zer da perfektua izatea? Bakoitzaren gustuetan oinarritzen da: ikasle hauentzako ni ez naiz polita, aldiz, nire gurasoentzako munduko politena naiz.

Gaur 2019ko urtarrilaren 6a da, niretzako momentu onenak bukatzeko eguna, bihar ikastola hasten da eta. Beste ume guztiei ere ez zaie gustatzen ikastolara joatea oporrak bukatzen direlako, hala ere, beraiek pozik joaten dira lagunekin egoten baitira, nik, aldiz, ez dut joan nahi, izan ere, txarto pasatzen dut.

- Ez, ez eta ez, gelditu mesedez! Lasaiago geratuko naiz amets txar batetik itzartu naizela konturatzean. Ikastolan nengoen bitartean, neska nagusiago batzuk kamisetatik eusten zidatela eta horma batean lotzen nindutela amestu dut. Lo egitera jo dut berriz ere.

- Ez mesedez, ez!, garrasi egin dut goiza heldu denean. Gaur infernua hasiko da.

Ikastolara heldu naiz eta ez naiz kapaza izan kotxetik jaisteko. Amari gogor eutsi diot eta esan dit nire buruarekin fidatu behar naizela eta edozer gauzarengatik berari deitu behar diodala. Tira ba, abentura edo infernu berri bat hasteko unea heldu da.

Kotxetik jaitsi naiz eta dena imajinatu nuen bezalakoa izan da, beno apur bat hobea. Nik pentsatu bezala, denek arraro samar begiratu naute, baina inork ez dit komentario itsusirik egin. Gelara heldu naiz, eta irakasleak nire gelakideen aurrean aurkeztu nau. Ezin izan dut jasan denak niri begira egotea.


- Nor zara zu? gelako hipopotamoa? -esan dit, neska ilehori batek

Taldeko neskak barrezka hasi dira, baina neska txiki batek, ni babestu nahian, zera aurpegiratu dio:

- Hanna ez pasatu!

- Tira goazen toki nazkagarri honetatik -agindu du Hannak.

Bakarrik bazkaldu dut, laguntasunik gabe. Baina poz pittin bat izan dut, neska txiki hark defendatu nauenean.



Aste bat pasatu da, eta lagunik gabe jarraitzen dut. Gainera, Hannak gorroto handia du nireganako: ni zirikatzen pasatzen du eguna. Baina, tira, aste honetan 3 eguneko zubia dago, horregatik, pozik nago, hala ere ez daukat eguna norekin pasatu. Zubian ez dut ezer egin. Leihotik beste umeeek nola jolasten duten ikusten aritu naiz, beno eta lo egiten ere bai.

- Timrriiiiiinn!, Tirrriiiiiinn! -alarmak jo du goizeko bederatzietan, ikastolara joan behar dudala ahaztu zait.

- Ezin da izan! -oihukatu dut.

Oso urduri jarri naiz, etxean ez baitzegoen inor. Nire gurasoek ohartarazi didate beraiek goiz-goizetik joan behar zutela lanera, eta nire kabuz itzartzeko. Ez dakit zer egin, ikastolara joan edo etxean geratu. Txarrena da, gaur ikastolan gure adimen-maila ikertu behar dutela. Azkenean, ikastolara ez joatea erabaki dut iseka egingo didatenaren beldur naizelako. Eta adimen-maila beste egun baterako utziko dut. Orain, gurasoei zer esan pentsatzen ari naiz. Hankako mina dudala? Hobeto ez, bistan baitago gezurra dela. Mmm...

Badakit!, buruko min handia daukadala. Termometroa, berogailuan jarriko dut, asko berotu arte, ondoren nire besape azpian jarriko dut, eta sinestu egingo didate.

Laranjazko zuku freskoa, esnea eta zerealak gosaldut. Horren ostean, logelara joan naiz eta mugikorrean amodiozko pelikula bat ikusten jardun dut. Bat-batean, mezu anonimo bat iritsi zait. Mezua zabaldu eta zera jartzen zuen:

- Kaixo!, zure ikastolako ikasle bat naiz!

- Nor zara? -erantzun diot ikaratuta.

- Aurreko astean, Hannaren aurrean defenditu zintuen neska!

- Egia, bai.

- Eta nola lortu duzu nire mugikorra? -galdetu diot harrিতuta.

- Ez izutu. Irakasleari baimena eskatu diot zurekin hitz egiteko.

- Eta zergatik? inork ez du hipopotamo itsusi batekin hitz egin nahi -erantzun diot.

- Ni ez naiz besteak bezalakoa, ez dut pertsona bat epaitzen bere fisikoarengatik, baizik eta nortasunagatik, horregatik aukera bat eman nahi dizut nire laguna izateko.

- Ni gustura izango nintzateke zure laguna, baina badakizu... nire laguna bazara, orain dituzun lagunak galdu egingo dituzu.

- Beno, beraientzako kalte. Eta benetan nire lagunak balira, ez litzaieke axolako zurekin egotea.

- Hitz barik utzi nauzu -erantzun diot ahoa zabalik. Baina zu ez zara klasean egon behar? -galdetu diot.

- Ez gaur, klaseak arin bukatu dira, adimen-mailako froga izan baita. Joan egin beharra daukat, Aio! -agurtu nau.

- Agur bai.

Oso arraroa iruditu zait elkarrizketa. Egia esanda, istripua izan nuenetik, ez dut inorekin, Maite eta nire gurasoez gain, mugikorretik elkarrizketa bat izan. Kaka zaharra!. Bere izena galdetzea ahaztu zait. Beretan pentsatzen hasi naiz, galdera mordoa ditut berarentzako. Ustekabean, gurasoak etxera heldu dira. Arrapalada batean termometroa berogailuan jarri eta nire besapera eraman dut.

- Ama, Aita, ez naiz oso ongi aurkitzen -esan diet dardarka.

Termometroa erakutsi diet eta gaixo nagoela esan didate.

- Ikastolara joan zara? -galdetu dit aitak.

- Ez, izerdi patxetan itzartu naiz, eta gogo txarra izan dut.

- Ohean sartu eta bihar nola zauden ikusiko dugu -adierazi didate.

- Ados.

Txarto sentitzen naiz, inoiz ez diet gezurrik esan, baina zerbait esan beharra nien.

Itzartu eta primeran nagoela aitortu diet nire gurasoei, ikastolara joateko prest egon naiz, aspaldi ez nuela holakorik sentitu, neska txiki harengatik izango ote da?

Ikastolara iritsi naiz eta pasilloan nengoen bitartean, mutil batekin egin dut topo. Nire liburu guztiak lurrera erori dira eta gorri-gorri jarri naiz. Mutilak barkamena eskatu dit, eta nire izena zein den galdetu dit. Eta nik totala, A-I-A-L-A erantzun diot. “Plazer handia zu ezagutzea, ni Xabier naiz, baina Xabi deitzen didate”, erantzun dit. Oso pozik joan naiz gelara arte, baina gelara sartzerakoan, aurreko asteko neska taldea hurbildu zait. Eta mehatxu egin didate Xabierrengana ez hurbiltzeko, Hannaren mutil-laguna baita. Klaseak bukatu eta jantokira joan naiz. Denak taldeka eseri dira, ni izan ezik, bakarrik egon naiz. Ezustean Xabi hurbildu zait, eta galdetu dit, zergatik nagoen bakarrik eta proposatu dit bere mahaira hurbiltzeko. Baina nik ezetz esan diot, Hanna nirekin sartuko zelako beldur bainintzen. Nola ez, Hanna hurbildu egin da eta ni iraintzen hasi da. Xabik defendatu egin nau. Baina, Hannak, berdin jarraitu du, ni atakutzen. Halako batean, neska txikia hurbildu da iskanbilara.

- Hanna zertan ari zara? -utzi ezazu Aiala bakean.

- Orain zu zer zara, bere laguna? -erantzun dio harrituta.

- Bai, arazoren bat? -esan dio, eta ni asko lotsatu naiz.

- Benetan ari zara? Tira ba, aukeratu bera edo ni. -mehatxatu du.

- Zu betiko laguna zara, baina zuk dakizun gauza bakarra jendeari kalte egitea da, horregatik bihotz oneko pertsona bat nahiago dut, zu aukeratzeari baino. Beraz, Aiala aukeratzen dut. -erantzun dio konbentziturik.

- Goazen toki nazkagarri honetatik Xabitzo -agindu dio Hannak Xabiri.

- Ez, Elik arrazoia du, ezin duzu jendea gaizki tratatu, hemen galdutako naiz, eta gurea bukatu da. -erantzun dio.

Harrituta geratu naiz. Den-dena nigatik izan da.

10 aste pasatu dira jada, jantokian gertatutakoaren ostean, dena aldatu egin da. Xabi nire lagunik onena da eta Elirekin oso ondo moldatzen naiz. Denbora asko pasatzen dut beraiekin. Eta batez ere Elirekin. Uste dut berarekin maiteminduta nagoela, eta prest nago, berari esateko, bere neska laguna izan nahi dudala.

Arratsaldea iritsi da, eta Eliri aitortu diot, berarenganako sentitzen dudana guztia. Muxu bero eta handi bat eman dit.





Ipuinak



Aetz

Sampedro Landa

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

Nor da nor?



IL-19

Ezin nuen itxaron kontzertu hura heltzeko, irrikitan egon nintzen duela hilabetetik. Maria eta Mirenekin aterako nintzen eta gainera duela asko ez nuen izan lasaialdirik lan kontuengatik. Vendettaren azken kontzertura gindoazen eta oso itxura ona zuen, gau hura beti gogoratuko nuela pentsatzen nuen, eta horrela izan zen.

Gela ilun batean esnatu nintzen, beldurrez nengoen. Ez nuen ezer gogoratzen. Memoria lausotuta neukan eta besoetan ziztada markak nituen.

- Nor da dabil hor? -oihukatu nuen ahal nuen ozenen.

Ez zidan inork erantzun, baina arnasketa sakona entzuten zen gela ilun eta umel hartan. Zer gertatu zen pentsatzen ari nintzela, gauza desatseginak etorri zitzaizkidan burura, baina alde batera utzi, eta atzo gauean mozkortu eta ona heldu nintzela pentsatu nuen. Baina ez zuen zentzurik. Nire pentsamenduetan sartuta nengoela, atearen zirrikitu bat zabaldu eta janaria eta edaria zekartzan erretilua sartu zidaten, momentu hartan hotzikarak sentitu nituen eta konturatu nintzen, honek nire lanarekin zuela zerikusia.

Nire lana hilketak aztertzea zen, eta garai haietan hilketa batzuk aztertu nituen: dozena bat pertsona agertu ziren Bilbon hilda. Azterketa guztien artean patroï bereizgarri bat zegoela ikusi nuen. Hilketa guztietan hildakoak bi zulo zituen lepoan, eta odol guztia xurgatuta zuen. Ikerketa hau Leire izeneko beste ikertzaile batekin partekatzen nuen. Leire inspektore abila zen eta berarenganako zerbait sentitzen nuela ezin dut ukatu.

Bat-batean nire aurreko atea zabaldu zen eta beltzez jantzitako bi gizonen besoetatik hartu eta arrastaka eraman ninduten lurretik. Oihuka hasi nintzen.

- Nortzuk zarete? Zer nahi duzue? Mesedez aska nazazue! -alferrik izan zen, aurrera jarraitu zuten entzungor.

Gela ilun eta itxi batetara heldu ginen. Metalezko mahai handi eta hotz bat zegoen erdian. Kristal bat aurrean eta egurrezko bi aulki. Ni kristalera begira. Hotzikarak nituen eta beldur nintzen. Ez nekien zer nahi zuten. Oihuka galdetu nuen azken aldiz.

- Nortzuk zarete? Zer nahi duzue ? -baina ez zuen inork erantzun.

Atea zabaldu zuten eta nire aurpegia guztiz aldatu zen. Gutxien espero nuen pertsona agertu zen, Leire. Besarkada bat ematera joan nintzen; eskuburdinek ez zidaten utzi. Shock egoeratik bueltatu nintzen bere aurpegia begiratu nuen, ez zuen itxura oso onik. Banekien ez zekarrela ezer onik. Haserre eta beldur aurpegia sumatu nion.

- Zer pasatzen zaizu Leire? Esan diezadakezu zer gertatzen den? Mesedez. -ez nekien poztu edo beldurtu.

Nire barnean ezegonkor nengoen, sentimendu eztrandak nituen, eta konortea galtzear nengoen. Leirek ez zuela erantzuten ikusita, hizketan hasteko nintzen. Leiren ezpainak mugitzen hasi ziren baina.


- Nire izena ez da Leire, Sofia baizik eta ez gara polizia kideak. Ikertzaile hasi berri bat naiz eta zu psikopata bat. Utz nazazu lasai, ahaztu nitaz!

Altxatu eta joaten hasi zen, beldur aurpegiarekin, negarrez. Ni oraindik shock egoeran nengoen.

- Mesedez... ez zaitetz joan, ezin da izan, akats bat izan behar du: hau ezin da izan!

Buelta eman zuen niri zerbait esateko, baina esku batek arrastaka atera zuen gelatik eta geroztik ez dut ikusi. Bitartean harrিতa jarraitzen nuen, ez nekien zer egin, negarrez hasi nintzen. Ez dakit zenbat denbora egon nintzen negarrez, baina oso arin bukatu zen dena. Begiak ixterako hau entzun nuen.

- Mesedez Sanchez jauna utzi negar egiteari eta entzun iezadazu. Rodrigo inspektorea naiz, zure kasua aztertu duen polizia. Zure eskubideak irakurriko dizkizut. Konortea galdu nuen eta ez dut gehiago gogoratzen.



Lau hilabete geroago epaiketa hasi zen, ekainaren 26an. Uda zen eta egun eguzkitsu eta beroa suertatu zen, baina nik hotzikarak eta goragalea nituen. Epaiketa 12:00etan hasi zen, banekien ni ez nintzela izan eta epaileari azaldu nion gertatu zena.

Azkenik, lekukoak estratutik pasatzen hasi ziren, beraien testigantzak eskaintzera. Garrantzitsuena Rodrigo inspektorearena izan zen.

Egia esango zuela zin egin ostean honela hasi zen.

- Lehenik argazki hauek ikustea komeni da. Argazki honetan argi eta garbi ikusten da inputatuaren soslai bereko pertsona bat Bilboko kale kantoian batean, hilda agertu ziren pertsonetako bat hiltzen. Gainera, ADN frogak hauek agertu ziren. Inputatuaren ADN berdina da.

Momentu hartan nire errugabetasunenaz duda egin nuen. Arin joan zen sentimendu hori Rodrigo inspektoreak bere testigantza bukatu ostean; nire abokatuak eta familia kideek beraiengandik espero ez nuen gauza bat egin zuten. Epailearen aurrean frogatu zuten arazo mental bat nuela, eta kontutan hartzeko.

Azkenean, nire bizitza osoa zoroetxe batean pasatzera kondenatu ninduen epaileak. Familiartekoei huts egin zidaten. Nire errugabetasunean sinisten dut.

Ipuinak



Maddi

Loizate Izurieta

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailean
Fray Juan de Zumarraga Institutua

Indarrarena



“Ez dago zereginik, utzi ezazu hau” esan diot neure buruari behin baino gehiagotan nire oinak helbide zehatz hartara zuzenduz kalea zapaldu dudan bakoitzean.

Etsipenak jota nengoen eta begirada beltza botatzen nion inguruko guztiari. Dena ikusten nuen ilun, irteerarik gabe, konponbiderik gabe, guztiak zentzua galdu izan balu bezala. Ezin nituen malkoak aurpegitik ezabatu, eta alfonbra baino gehiago, mukizapiak nituen etxean. Pijama beroa erantzi gabe pasa nuen astebete inguru, dutxaren ur azpian jarri gabe. Ez nuen indarririk gorputzean. Ez nuen irtenbiderik ikusten. Lotsatuta sentitzen nintzen, umiliatuta. Neure nuen zerbait kendu izan balidate bezala. Eta hor nengoen. Egon behar nuen. Izan behar nuen. Nire izateari eutsi behar izan nion jarraitzeko, nire erroari, erditzetik nigan nuenari, esentziari. Neure gorputzeko eta arimako izkina, txoko eta zirrikitu guztietan miatu nuen, eta aurkitu nituen indar apurrak izan nituen bizkartzain. Behar izan nuen bultzadatxoa eman zidaten. Nire kontzientziak barruak ezegonkortzen zizkidan (eta dizkit). Gogorapen hutsak hotzikarez betetzen ninduen (eta nau). Ez nuen ezer egin eta ez nuen halakorik merezi. Ez nik ez inork. Ez atzo, ez orain, ez bihar. Baina hala izan zen. Gertatu zen. Niri gertatu zitzaidan, eta nik ez nekien nola egin aurre horri. Norabiderik gabe eta iparrorratza hautsita, pausoak ahuldu zitzaizkidan. Nigan nuen segurtasuna jadanik ez zegoen. Galduta nengoen, gertatutakoaren eta nire kontzientziaren arteko linbo antzeko batean noraezean. Zer egiten da halakoetan? Nola egiten da aurrera? Nola topatu berriz bidea? Inoiz egingo al dut berriz irribarre?

Galduta sentitzen nintzen, bat-batean, ezagutu uste nuen mundua ke bihurtu izan balitz bezala. Eskuen artean galdu nuen. Ispiluan begiratzeak beldurra ematen zidan.

Ez nuen nire isla ikusi nahi, ez nituen nire begi goibelek ezkututzen zituzten malkoak ikusi nahi. Ez neukan indarririk. Etsipenak hartuta nengoen, buru makur. Ilea motots batean bilduta izaten nuen beti, eta mukizapiak poltsikoan, momenturo irtetearekin mehatxatzen ninduten negar malkoak sikatzeko. Ezin nuen gertatu zitzaidana ulertu. Eta beldur nintzen. Beldurra sentitzen nuen, eta sentimendu hau izan nuen lagun denbora luzez. Oraindik ere badut. Ez nekien nola kontatu hura, ezin nuen. Burmuinak, ni neu babesteko edo, gogorapen horiek memoriaren zirrikitu batean ezkutatutako kutxa batean sartu zituen; eta ondoren giltzaz zarratu zuen kutxa. Baina subkontzienteak, kontrola ezin daitekeen adimen ilunak, kutxa lokalizatzeko GPS-a zuen hura irekitzeko giltzaren kopia baten ondoan. Horregatik, beti nuen buruan, presente, beti nigan. Lotsa ematen zidan kontaktzeak. Nola egiten da publiko halako gauza bat? Ez nituen hitzak aurkitzen, eta ez nekien nola ordenatu. Beldur nintzen. Beldur nintzen gertatutakoa kontaktzeaz, beldur berriz gertatzeaz.

Ez zen bidezkoa. Ez zen bidezkoa. Ez zen bidezkoa.

Baina gertatu zen, hala zen. Hura zen errealitatea eta egia. Ez zegoen nire esku eta gertatu zen. Nire esku balego... Nire esku balego, orain irribarre eginez nengoke lagunekin eta familiak nire berri izango luke. Pozik sentituko nintzateke, lasai, bakean, arima sosegatuta. Ondo egingo nuke lo. Kalera irteteko beldurrik ez nuke izango. Gustura sentituko nintzateke neure buruarekin, seguru. Baina mundua ez dago nire esku.

Eta nire lagunak? Igarriko al dute zerbait ez dagoela ongi nigan? Jakingo al dute? Gau hartan komunera joan nintzenetik oso gainean izan ditut. Nire etxeko kobazuloan itxita egon naiz luzaroan. Ez diet ezer kontatu, baina etorri izan zaizkit bisitan. Besarkatu naute. Agian sumatzen dute zer gertatu zaidan, eta horregatik esan didate hainbeste aldiz, bai aurpegira, bai mezuen bidez, “hitz egin nahi baduzu, hemen gauzkazu”, “zurekin gara beti” edo “maite zaitugu, asko, izugarri”. Eskutik heldu didate, baina ez diet ezer esan. Ez dakit nola egin. Haiek ere ez didate ezer esan. Ez dira ausartzen haien susmoak ozen esaten, ez

dute adorerik. Eta ni ez naiz ausartzen haien susmoak ozen baieztatzen, ez dut adorerik. Baina orain bidean naiz. Irten naiz. Banoa eta kontatzeko prest nagoela uste dut. Kontatzeko prest nago. Prest, egun osoa behar badut ere.

Nola ote dago nire familia? Amak eta aitak deitu naute noizbehinka Paris urrunetik, eta egia ezkutatzuz, neure buruaren ahalik eta bertsio alaienarekin erantzun diet. Badakit bizirik daudela gainerakoak ere (izeba-osabak, lehengusuak eta aitona-amonak), familiako *whatsapp* taldera pare bat mezu bidali baitituzte. Betiko argazki barregarri-kutreak eta ildo horretako beste horrenbeste bideo labur. Ez dira nire irribarra ateratzeko gai izan. Notizia eta iragarki batzuk ere bidali izan dituzte, egungo munduaren egoera negargarriari buruzkoak gehienak. Horiek guztiak, “VOX madarikatua”, “Pablo Casado *go home, refugees welcome*” eta beste abar luze bat osatzen duten lelo ugariz lagunduak. Nahiko aurrerakoiak dira, modernoak, Iglesiasenak Riverarenak baino gehiago; baina badira kontu tabu batzuk. Gai batzuk ateratzean, Luzifer bera etxeko egongela berean agertu izan balitz bezala jokutzen dute. Aurpegiko kolorea zuritzen zaie, munstro bat ikusten duenaren antzera. Sexua. Hori dugu kontu ezkutua. Inork ez du aipatzen, gazteenek solik. Kuriositatea dela eta, edo. Segituan eramaten du amonak orduan eskuineko atzamar erakuslea ezpaintedara eta “lxo” esaten die. “lxo”. “lxo”. Horregatik ezin izan diet egia esan. Beldur naiz. Beldurra ematen dit beren erantzunak.

Orri zuri hauetan zehar idaztea erraza da. Boligrafo urdina gelditu gabe ari da orriotan barnean dudana idazten, korapiloa askatzen. Nekatu gabe. Geratu zaidana baina, ez da erraza. Ez da polita, ez da atsegina. Ez zen halakorik gertatu beharko. Ez hemen, ez han, ez inoiz, ez inori, ez. Ezberdintasunez josiriko gizarte bidegabe honetan nirea bezalako kasuak egunean lau erregistratzen dira ofizialki. Auskalo zenbatek jasaten dituzten isilpean, baldintza ezin okerragotan hondoratuta, ahoa ireki ezin. Isiltasunera kondenatuak, munduaren pisua sorbalda gainean. 2017an %10 hazi zen tasa, eta 2018an, zoritxarrez, gorantz doa. Zer gertatzen zaigu? Zer dago gaizki gudan? Denbora aurrera doa, baina badirudi atzera pausoak emanez goazela historian aurrera. Inor ez da inor baino gehiago. Denok gaude bizirik eta denon bizitzak du balio

berbera. Edo hori da teoria. Teoria polita da, baina errealitatea ez da hala. Ez gara mundu zuzen batean bizi, zoritxarrez. Eta askotan, ezkutatu nahi duten justizia posible horri utopia deitzen diote. Utopia. Hori diote. Utopia hitza erabiltzen dute. Ez da utopia egia ezkutatzea. Baina orain poltsikoak diruz beteta dituztenek erabakitzen dute zein bizi den garrantzitsua eta zein ez. Gizonak emakumeen gainera, beltzak zerbait beherago, asiarren pareko. Hierarkia batean murgildurik ez dugu ikusten denok berdina gaitza, eta denon artean gizarte bidegabeago bat lortzeko bidea eraiki dezakegula. Itsu gaude. Ezbeharren zain, eta datozenean, eskuak burura eramanez, "Ai ene!" irteten zaigu.

Norbaiti erakutsi diote ni baino gehiago dela, eta horregatik egin dit hau. Indar gehiago zuen baboak, eta besoa atean jarritz, komunetik ezin irten utzi ninduen. Lagunekin irten nintzen gau hartan, zubi luzea zen eta pozik sentitzen ginen. Gaua geure egin nahi genuen. Ikasturtea bukatzeaz, merezi genuela sentitzen genuen. Hirira joan ginen autobusez, etxera taxiz itzultzeko kontuaz. Diskotekak ez zaizkigu asko gustatzen, baina herriko taberna zarratu zuten, eta kalearen amaieran zegoen antzara zuzendu ginen. Musika ona jartzen omen zuten, eta pare bat kalimotxo hartu ondoren, antzara hartako atea zeharkatu genuen.

Betiko argi koloretsuak. Beroa. Kea. Barra pixka bat aurrerago ikusi genuen, eta askotariko musika jartzen zuten. Alkohol gehiago eskaini genien geure urdailei. "Gau bat baino ez da" esan zigun Iraiak, eta guk amen. Kolore exotikoko pare bat *txupitoren* ostean. Horren ostean.

Ondoren.


Ai.

Nire bizitza hankaz gora jarri zen.

Orduan hartu nuen betirako damutuko zaidan erabakia.

Komunera joan nintzen. Badakit gertaturikoa ez zela nire errua izan, badakit. Baina joan izan ez banintz...

Pixagura nuen. Alkoholak ezin zuen gehiago egon nire zainetan barrena. Kanporatu beharra nuen. Ezin nuen gehiago, baina nire lagunak gustura zebiltzan "Better Now" kantaren noten artean pausu



IL-19

traketsekin batera eta bestera dantzan. Ez nituen molestatu nahi, eta bakarrik joan nintzen.

Zer emango nukeen atzera egiteagatik...

Komunak atzealdean zeuden, emakumezkoenak eta gizonezkoenak parez pare. Ez zegoen ilararik, eta itxoin gabe, segituan sartu nintzen azkeneko komunera. Nire denbora hartu nuen, neurona lokartuek kostata bidaltzen baitzizkieten aginduak gainerako gorputz-atalei. Pixka egin nuen, eta berriz jantzi nituen mediak eta gona. Pixka bat tardatu nuen. Baina azkenean, kisketa ireki eta irten nintzen. Eskuak garbitzeko beharra sentitu nuen eta xaboirik ez zegoenez, uraz soilik garbitu nituen. Norbait ikusi nuen mutilen komunetik irteten, baina ez nion kasurik egin. Paperarekin lehortu nituen eskuak, eta nire lagunengana zuzendu nituen oinak.

Baina irteten nindoala.

Irteten nindoala.

Orduan.

Orduan, beso baten aurka jo nuen. Begiak jaso eta han zegoen.

Han zegoen. Irribarre egiten zuen. Apartatzeko eskatu nion. Berak ezetz. Nik mesedez. Bera geldi. Irteten saiatu nintzen, beso azpitik. Eskumuturra heldu zidan. Askatzeko indarra egin nuen. “Utz nazazu bakean”. Nire burmuin lokartuak ezin zuen gehiagorik egin. “Arren, mesedez”. Irribarre egin zuen. Irribarrez begiratu zidan. Eskumuturretik heldu zidan. Askatzen saiatu nintzen. Oihu egin nuen.

- Lagundu!

Musika altuegi zegoen, inork ez ninduen entzun. Ez zegoen inor komunetan, inork ez ninduen entzun. Inork ez zituen nire laguntza oihu mozkorrek entzun. Eta hark, ahoa estali zidan bere esku handiarekin. Apartatzen saiatu nintzen. Koska egiten saiatu nintzen. Haren esku zikina aurpegitik kendu nahi nuen. Mozkorregi nengoen. Indartsua zen. Oihu egiten saiatu nintzen. Egin ere egin nuela uste dut. Banekien zer gertatu behar zitzaidan. Banekien zer zetorren. Nire burmuin lokartua paralizatu edo egin zitzaidan. Bat batean ezin nuen ezer egin. Ez nuen neure burua sentitzen. Mutil hark komun batean sartu ninduen. Kisketa

itxi zuen. Haren ezpain lizunek nireak musukatu zituzten. “Gelditu, mesedez” malko artean nik. “Arren”. Baina ezer ez. Ahazteko ditudan milaka gauza egin zizkidan, munduak bestaldera begiratzen zuen bitartean. Bera eta ni bakarrik, komun hartan, munduko lizunkeria handienetakoaren biktima eta autore. Autore eta biktima.

Ahaztu egin nahi dut.

Atzean utzi nahi dut. Ez dut nire burua zigortu nahi. Gertatutakoa ez da nire errua izan. Ez dut neure burua gertaeraren gogorapenera kondenatuko. Ez dut merezi. Baina ez naiz ezkutatuko. Gehiago ez, berriro ez. Ezin dut. Ez dit onik egiten. Lur jota nago. Lehengo bizia nahi dut bueltan. Irriak, jokoak, lagun arteko afariak. Ezin dut denbora gehiago pasatu kobazuloan, dena bere lekura itzultzeko esperoan. Ulertu dut gertatutakoa azaldu behar dudala. Ezin dut gehiago. Nekatu naiz.

Kontatu egingo dut. Isiltzeak ez dit onik egingo. Barruak eta izatea ustelduko zaizkit, eta ez nago horretarako prest. Ez dut errurik, eta ez dut gertatutakoagatik zigortuko neure burua. Hura gertatu zitzaidanetik hutsaren hurrengo sentitu naiz, baliorik ez banu bezala. Izaki hark egin zizkidan gauzek nire zati bat utzi zuten antro hartan, komunetan. Nire egunen bukaerara arte madarikatuko dudan txoko zikin hartan. Nire izatearen zatitxo bat han geratu zen, barnean nuen duintasun puska bat galdu nuen. Agian ez dut sekula berreskuratuko, agian galdutakoa ez da nigana itzuliko eta noraezean geratuko da, linbo ezezagunen batean.

Orain frogatu dut biktimaren oinetakoak jantzi arte ezin dela abusu eta indarkeriaren egia osoa ulertu. Orain ulertu dut norbaiten intimitatea lapurtzean jasaten den umiliazio eta lotsa. Gizarte pasibo batek egia sinets ez dezan beldurra zainetan duzula sentitzean soilik uler daiteke isiltasun beharra, galdu zaizuna berreskuratzearen beharra eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko beharra. Hainbeste kasuren ostean, errua biktimei botatzen jarraitzen duen gizarteak errealitate lotsagarri bat ulertzeko duen ezintasuna harrigarria da. “Zer zeneraman soinean?”. Nik “kamiseta txuri bat, gona bakeroa eta mediak” erantzungo dut, eta orduan bizkarrezurretik gora hotzikara eragiten duen hura entzun beharko dut: “Gona bat? Hori eta eskatzen aritzea gauza bera da”. Ez da gauza bera. Ez da gauza bera. Nahi dudan eran jantzteko

askatasuna dut. Eta hala egingo dut. Ez naiz isilduko ezin dudalako. Nire isiltasunak tipo hura aske egotea bermatzen du, ondorengo neska ahularen bila. Eta horren ostean, beste bat etorriko da, eta beste bat horren ostean. Nire isiltasunak kate honen jarraipena ahalbidetzen du. Eta ez naiz izango halako gauzen errudun ez erantzule. Ez dut inork nik jasandakoa jasan dezan nahi. Ezin delako. Horregatik, ez naiz isilduko. Ez du irabaziko. Eroriko da, eta ni, hor egingo naiz, esperoan. Nire mina uler dezan arte.

Gertatu zenetik denbora igaro da. Erlojuek ez naute itxoin, eta denborak atzaparretatik egin dit ihes. Koldartu egin nintzen, lotsatu. Izaren artean ezkutatu nintzen. Ez nituen hitzak aurkitzen, eta haiekin topo egitean ez nekien gertatutakoa azaltzeko orden bat bilatzen. Milaka zatitxotan hautsi nintzen, eta asko kostatu zait horietako bakoitza aurkitzea. Oraindik kaxa batean dauzkat gordeta. Ez dakit horiekin nola berreraiki neure burua, nola osatu puzzlea. Baina badakit aurkituko dudala modua, eta badakit aurrera egingo dudala. Kostatu bazait ere, azkenean ulertu dut ezin dudala barruan gorde gehiago, korapiloa askatu behar dudala eta guztia salatu. Bortxatu egin naute, eta aurkituko dut iluntasunetik irteteko bidea.





Ipuinak



June

Azkarate Irigoras

Akzesita 17 -18 urte bitartekoen sailean

Ibaizabal Ikastola

Tik-tak...1, 2, 3?



Pipipipi pipipipi, pipipipi pipipipi!

- Paaauuul! 8:00ak, gosaria prest dago! Ez ibili denbora galtzen!

Baina zer dio amak? Bizitza osoan esaldi bera, “denbora galdu, denbora galdu”.

Ohetik altxatu, pijama erantzi, arropa jantzi eta gosalduta ondoren, ikastolarantz abiatu naiz. Puff hori bai aspergarria! Egunero egunero, goiz eta arratsalde leku horretan sartuta klase aspergarriak sufritzen, irakasle aspergarriak ikusten, lan aspergarriak egiten eta noski, betiko esaldi aspergarria entzuten: “Ez denborarik galdu”. Egia esan, pentsatzen jarrita, 3 ikasgai soilik gustatzen zaizkit: gorputz hezkuntza, hegan dabilen tximeleta bat bezain libre sentitzen naizelako; marrazketa, nire barruko korapiloa orri batean askatu dezakedalako; eta azkenik, musika. Oh, musika! Hauxe da, zalantzarik gabe, nire gogokoena. Andereñoak denbora markatzen duela dio, baina nik ez dut inon markarik ikusten, eta abesten edo dantzatzen hasteko esaten digunean, begiak itxi eta nire gorputza, agindurik eman gabe, mugitzen hasten da. Ez dut inor jarraitzen, ez dut ezer jarraitzen, ez dakit zertan ari naizen, ezta non nagoen ere, baina zoriontsu sentitzen naiz. Bat-batean, begiak zabaltzean, gelakide guztiak begira ikusten ditut, arraroa den zerbait egingo izan banu bezala eta andereñoak ez dudala denbora errespetatu esaten dit...”Denbora errespetatu”, “Denbora galdu”, “Denbora markatu”. Beti berdina, baina nik denborari ez diot ezer egin eta! Ui, azken hau altuan esan dudala uste dut, guztiak barrez lehertzen dabilta eta irakasleak kalera bidali nau. Ez dut ulertzen, kalean bilatu behar al dut denbora?

Kanpoan nagoen arren, gelako musika entzutean nahigabe dantzan hasten naiz berriz ere, eta konturatzeko amaitu da klase ordua, orain matematika tokatzen zaigu... ziur arbela biderketa eta zatiketaz beteko duela eta etxerako lan pila bat bidaliko digula, jo!. Burumakur, nire lekuan esertzea baino ez zait geratzen, ez dut arbela begiratu ere egin nahi, 12/6, 23X3, 27/9 eta 9X...Kaka zaharra! Jesarri bezain laster, Peio maisuaren ahotsa entzun dut:

Adi, denok! Begiratu arbelera.

Puf! burua altxatu behar. Baina, aiba! Sorpresa! Arbelean ez dago kenketa ezta gehiketarik, arbelean "DENBORA" idatzita dago, zer da hau? Zer gertatzen da? Badirudi gaurko saioan denbora neurtzen ikasiko dugula eta gaiak interesgarria dirudi; gaur bai, gaur nire zalantza guztien erantzuna aurkituko dut. Uste dut matematikako klase batean benetan adi nagoen lehenengo aldia dela. Hasi da maisua, "ORDUAK"...beno, ia zer diren, agian zerbaitetan lagunduko didate. "MINUTUAK", tira, pistaren bat lortzeko beharbada. "SEGUNDOAK", nire azken aukera da, segundoak edo ezer ere ez...Eta, amaierarako, berdin-berdin jarraitzen dudala konturatu naiz. Bai, orain segundoak minutuak eta orduak dakizkit, baina, nola galdu da denbora eta non aurki dezaket? Ez al dit inoiz inork erantzungo? Argi dago ezin dudala horrela jarraitu; beraz, erabaki tinko bat hartu dut: denboraren detektibea bihurtuko naiz.

Irrikan nago ikastolatik irten, etxera heldu eta lasai-lasai bokadiloa jaten dudan bitartean amari nire erabakia kontatzeko. Ez dakit berak ulertuko nauen, baina ziur laguntzeko prest egongo dela.


Etxera heldu, motxila betiko bazterrean bota, eta sukaldera abiatu naiz. Um! txorizo usaina, detektibe batek behar duen energia. Lehenengo haginkadarekin batera...

- Ama erabaki bat hartu dut.

- Bai? Zein da, ba?

- Denboraren detektibe bihurtu naiz, zer iruditzen?

- Ai, gure Paultxo, txoriburu hutsa zara. Beti horrelako burutazioekin, zentratu zaitez zure eginbeharretan eta ez galdu denborarik txorakeriak pentsatzen.



II.19

- Hori da, ama, hori da! Denbora galdu! Nola galtzen da denbora? Nora joaten da? Non dago galdutako denbora hori? Nola berreskuratu dezaket? Zer da denbora, ama?

Nire inbestigazioa oso interesgarria iruditu zaio, aho zabalik begira ari baitzait.

Detektibe guztiek behar duten lehenengo gauza gabardina handi-handi bat da eta nik aitarena hartu dut. Etxeko lurra garbi baino garbiago utziko dudala dio amak, arrastaka baitaramat, baina balio izango duela pentsatzen dut. Orain, lupa lortzea da hurrengo pausoa, jostailuzko betaurreko batzuk erditik apurru eta txupatxusaren makila itsatsiko diet. Bai, hori da. Amaitzeko, txanoa besterik ez zait falta. Azti mozorroan jantzi nuena erabiliko dut, primeran. Hasteko prest nago!

2019/02/27 Lehenengo ikerketa

Arratsaldeko 18:00ak dira eta erlojuaren aurrean nago. Begiak kliskatzen ditudan bakoitzean orratz luzeenak marratxo bat aurreratzen du, 60 aldiz begiak kliskatu eta orratz luzeenak 60 marratxo aurreratu ondoren, tamaina ertaineko orratza aurreratu egiten da, marratxo bat gehiago. Tamaina ertaineko orratzak bira osoa ematen duenean, orratzik txikiena hurrengo zenbakira pasatzen da. Bitxia benetan, amaierarik gabeko zirkulu batean biraka dabilta orratzak, bata bestearen mendeko, guztiak denboraren mendeko.

21:00ak dira eta afaltzera noa. Bihar ez dut erlojuaren ikerketarekin jarraituko, beti gauza bera egiten duela ikusi dut eta. Baina... zein izango da hurrengo pausoa? EUREKA! Horrela esaten da, ezta? Bihar gurasoen diskoak aztertuko ditut. Izan ere, musikako andereñoak abesti bat jartzean denbora neurtzen ez dudala esaten dit. Bada, orduan, musikak denborarekin zerikusia izango du ezta? Edo denborak musikarekin?

Pipipipi pipipipi, pipipipi pipipipi!

Gaur jaieguna da jendearentzat, baina detektibeok ez daukagu horrelakorik, goizero bezala energia hartzera noa eta gero lanari ekingo diot. Oraingo honetan, gabardina ez da beharrezkoa izango, bero handia ematen dit eta. Nik uste dut luparekin eta txapelarekin nahikoa izango dela.



2019/02/28 Bigarren ikerketa

“Benito Lertxundi”, “David Bowie”, “The Beatles”, “Oskorri”, “Pantxoa eta Peio”. Ene! Peio! Nire matematikako maisua izango da, ez nekien abeslaria zenik, baina banabil gauzak lotzen musika, matematika denbora...ui! bide onetik noa.

Abestiak entzuten hasi beharko naiz. Ea hor agertzen den ditxosozko musikaren denbora, lehena Benito Lertxundiren “Itsasoari begira” izango da. Benetan polita, baina ez dut denborari buruzko ezer aurkitzen; beste bat jarriko dut. ACDC... honek alfabetoarekin zerikusia duela argi dago, baina nik uste dut erratu egin direla, ACDC? ABCD izan beharko litzateke. Hastera doa.

«One, two, three, four...Highway to hell...»

E! «One, two, three, four...» esan du eta horrek zenbakiak dira, ingelesez bai, baina zenbakiak. Orain argi daukat, guztia lotuta dago.

Paul, etorri mesedez, lagundu hau egiten, ez daukat denborarik eta.

Noski, nola izango du, bada, denbora? Berea izango balitz bezala, eta berea izanez gero, nola esaten didate niri galdu egiten dudala? Bihar astelehena da, eta ordurako amaituta izan behar dut nire ikerketa lana. Detektibe on guztiek ez dute egiten galdeketa bat? Bada, nire elkarrizketatua ama izango da. Zuzenean galdetuko diot benetan jakin nahi dudana. Bera oso azkarra da eta normalean galdetzen diodan guztia jakiten du.

- Ama oso galdera garrantzitsua egin behar dizut.

- Esan, laztana, zer gertatzen da?

- Zer da denbora galtzea?

- Bada, denbora galtzea da... eginbehar bat egin behar den momentuan ez egitea eta denborak aurrera jarraitzea eginbehar hori egin gabe dagoen bitartean.

- Eskerrik asko, ama, gelara noa dena idaztera.

Ez dut ezer ulertu, «eginbehar dena ez egin, denbora aurrera doa», ibiltzen al daki denborak? Oraingo honetan, ama ni baino galduago dagoela uste dut. Orokorrean nagusi guztiek nahas-mahas handia daukate denborarekin. Denek erabiltzen dute denbora hitza, baina inork ez daki

benetan zer den. Bakoitzak momentu ezberdin batean erabiltzen du edo gauza konkretu batekin erlazionatzen du, eta... denbora galdu? Ja! Agian nik ez dut beteko irakasleak edo amak jarritako «eginbeharra», baina hori ez da denbora galtzea, beste zerbait pentsatzen edo egiten egoten bainaiz. Ez dut ulertzen nola galtzen den denbora, baina egunen batean munduko pertsona guztiek beraien bizitza osoan zehar galdu duten denbora aurkitzen badut, niretzat hartu eta guzti-guztia aprobetxatuko dut.

Ez dut ikastolako lanak egin, eta edonork pentsatuko du denbora galtzen ibili naizela, baina ez, ni denbora sortzen ibili naiz edo denborari buruzko olerkitxo bat sortzen behintzat. Eta, pentsatzen jarrita, denbora galdu beharrean, aurkitu egin dudala esango nuke.

2019/02/29

Denbora izan da nire buruko mina

Horregatik nabil orain bere bila

“Denbora galdu duzu” diote

Ez badago lana egina

Baina denbora ezin daiteke galdu

Hori baita bere grina

Ez dago gure esku

Utzi ezazu ahalegina

Aprobetxatu oraina denok

Eta bera bakarrik joan dadila

Paul



Ipuinak



Marijoxe

Azurtza Sorrondegi

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

Kilkerren afonia



- Non sartu zaigu abesbatza? Non da kilker kuadrilla? -amona mantangorriak alde batetik bestera begiratu zuen urduri.

- Ez datorrela inor abisatuz etorri zaigu ozpin-eulia, amona! Denek gaitz berbera omen dute: afonia!

- Ez ba! Afonia orain? Eta zer egingo dugu? Gure agonia izango da haien afonia! Non aurkituko ote ditugu beraiek bezain onak diren abeslariak orain? -amona mantangorriak hegalak astintzeari ekin zion aztoratuta erdi-hegan, erdi-lurrean, azken orduan hegaletan pilatutako hautsa barreiatuz bere inguruan; larri zen- Ai, eneeee! Oi, hosto ihar zimurtuak! Ai, gu errukarriak! Erle erreginak ez digu luzaroan barkatuko hau! Aldrebeskeria eta barrabaskeria dela argudiatuko du, matxinada! eta ez digu bere lurretatik igarotzen utziko hilabetez gutxienez... eta ordurako ni hila! Erle denak jarriko ditu gure aurka eta hori gure akabera izango da! Ene, Mantangorrigoikoa! Gureak egin du, oti!

- Aaaatxis! -egin zuen doministiku oti-berdeak, amona mantangorriak harrotutako hautsak sudurrean eragin zion azkuraren ondorioz-. Ez da hala izango ba!

- Nola ez ba! Batzuetan txepela dirudizu! -bota zion ernegu zantzuekin oti-orlegiari.

- Zer diozu? Txepetx ala pexkara jolastuko garela?

- Ez ba! Ez ezazula tetele-metale hitz egin! Nahiko nahaste-borraste izango dugu ezteian, hitz eman genuen abesbatza ez badaramagu muino

gaineko erlauntzera. Oti-berdea, zure lagun marisorginek ongi abesten duen inor ezagutu al lezake? Edo abesbatzarik aholka diezagukete bestela?

- Tximeleta-taldea agian! Aukera bat izan liteke.

- Baina... Kokolo! Xomorro! Tximeletek dantzan ondo dakite, baina abesten, piperrik ez! Gainera, horiek lana badute ezteian dagoeneko: ezteiliarrentzako ongiatorri bidea haien hegalekin dantzan eginez koloreztatu behar dute.

- Intsektu hostoak edo makilak?

- Nola ba! Horiek, kamuflatuta, hauspo-lana egiten ariko dira udailunabarreko giro beroa freskatzen!

- Errauliak, orduan?

- Ez ba! Hartxintxarrak bezain geldoa dirudizu, oti! Zaintza brigadakoak dira haiek: erleak ezteian aztoratu eta ziztaka hasi ezker, errauliek azaleko eritasuna sendatzeko kantaridina sortuko dute!

- Iputargiak.

- Baina zuk zerrautsa ote duzu buruan?! Horiek ere haien eginkizuna dute. Ez al zara sekula ezkontza batean izan, ala?

- Ez, sekula ez –erantzun zion lasai asko oti-orlegiak.

- Hara ba –hasperen egin zuen amona mantangorriak– Orain ulertu dut. Azalduko dizut, ea ba. Gaur iluntzeko ezkontzan, ezkontza denetan egin ohi den bezala, erle ezteiliarrak eztei lekura iristean norberak bere eginkizuna izango du: tximeleta koloretsuek abegi dantza egingo diete, ipurtargiek erlauntza-bidea argiztatu, intsektu hosto-makilek bidea hauspotu, bero sapa izango baitugu, eta errailek jaia zainduko dute, erle ziztaden aurkako sendagaia ugari sortuz, sendietako erleren bat gehiegi hunkitu eta ezbeharrean ziztaka egiten badu ere, erne. Orain argiago duzu?

Amona mantangorria urduri zen, kirioak dantzan. Bere bizkarraldeko kolore gorria are gorriagoa zuela zirudien eta bere aurpegia ezinaren atsekabeak iluntzen hasia. Erlauntzan ezkontza ospatzekoak ziren eta ez zegoen abesbatzarik gabeko ezkontzarik. Zirudien aspalditik zetorren ohitura zen, txori goseti-basati talde batek behinola ezkontza batean

eskualdeko ia intsektu denekin amaitu zuen garaitik alegia, kilkerrekin ezik, haien irrintzi, oihu eta zalaparta korapilatsuek txoriei buruko mina sortu eta honela haien eraso lerratua nahaspilatzea lortu baitzuten. Kilkerren aurrean amore eman besterik ez zuten izan, eta alde egin zuten. Handik aurrera, beraz, ezkontzak, ilunabarrez eta kilker abesbatza ohorezko gonbidatu moduan izanik ospatzeari ekin zioten, babes gisa. Egiari zor bagintzaizkio, kilker abesbatza onena zela erantsi beharko genuke gainera... gauero-gauero entseatzen baitzuten ilunabarraren epelean: ez zuten parekorik haien akorde eta batera abestean.

- Marisorginek ahal duena egingo duela hitz eman dit, marigorri! –esan zion handik gutxira oti-berdeak hankak luzatuz. Lasaitasun hasperena bota zuen amona mantangorriak, marisorgina intsektuen artean agintari-mari baitzen. Ea nor zetorkien!

Ez zuten asko itxoin behar izan lehen taldea agurtzeko, prozesio moduan hasi baitziren zomorro abesbatzak gerturatzen. Sinestezina zen zenbatek egon nahi zuen eztei ospakizunetan, bestela ez baitzegoen gertatzen ari zena ulertzerik. Demasa zen. Tirriki-tarraka zetorren ilara luzea, pixkanaka hurreratuz. Bihotz-estutu egin zen ilara luze harekin marigorringo eta ahoz gora galdetu zion lagunari:

- Baina oti-berdea, nola jakingo dugu guk nork abesten duen ondoen?

- Hara! Irtenbidea ekarri dut. Bidean lagun talde bat bildu dut gu baino erneago eta biziagoak diratekeenak.

Antenak txirikordatu zitzaizkion bere larritasunean amona mantangorriari epaile lanerako aukeratutakoak bere aurrean errenkan ikusitakoan: hori zen epaile-talde pattala! Makala! Denei zerien lerdea eta geldo tankera. Hura bai moteltasun itxura. Ez zuen lagun talde “pixkorrena” ekarri, antza, oti berdeak!! Barea, barraskiloa, zilar arraina, ehun zangoa eta zizarea zituen aurrean marigorrik, hari begira-begira, muki putzuaren erdian. Elkar bultzatu zuten oharkabea, irrikaz baitzeuden. “Mukitsu!” bota zion haserre batean bareak barraskiloari, “motel halakoa!”, erantzun zion lotsagabe barraskiloak.

“Eneeee! Hori behar genuen orain, zorri eta arkakusoak bezala elkarri “ñimiño” irainka hastea. Hau burugabekeria! Ez goaz inora zomorro purrustada honekin!” pentsatu zuen amona mantangorriak. Bere zuhurtzian

sinistu beharko zuela ohartu zen eta bihotz izanik esan zien: “Belarriak erne! Burua esna! Has gaitezen!”

Entzun zuten lehen abesbatza arkanbele eta arrabioek osatutakoa izan zen. Perkusioan onenak ziren, arkanbeleek barailak elkar joz tonu grabreak lortzen baitzituzten eta arrabioek kelekin altuak. Zoragarria izan zen! Amona mantangorriak bere sei laguntzailei begiratu eta denek baietz esan zuten buruarekin.

- Zuek gaur gure orkestra bilakatuko zarete! -bota zuen oihuka bere poza ezin ezkutatzuz.

Arin arin etorri ziren bigarrenak. Ez ziren matxinsaltoak, txitxarrak baizik. Iritsi eta zuzendariak bere lekua hartutakoan, denek ekin zioten abesteari. Hura bai indarra! “Eskerrak! Fundamentuzko abesbatza azkenean!” pentsatu zuen berekiko amona mantangorriak.

- Onartuak eta hobetsiak! Barrura! - esan zien beste epaimahaikideei galdetu gabe.

Hirugarren taldea erle eta liztor arruntek, enperadore-sorginorratzek zein landa liztorrek osatutakoa izan zen. “Zzzzz” etengabe eginez, ez zuten doinu berezirik errepikatu ahal izan, baina, orkestran arkanbele eta arrabioekin tokia izan zezaketela iruditu zitzairen epailei, txitxar abeslarien akonpainamendu.

Laugarren taldea mandeuli, tipula-eltxo, suge-euli, eltxo, euli, ozpin-euli, pipi eta inurri hegalariek osatu zuten. Ezteietan egotearren osatu zuten abesbatza eta nabari zitzairen, eskas aritu baitziren: ez zitzairen ia entzun haien onena eskaini zutenean. Haien hegoak astintzean ez zuten nahiko zarata lortu. Entsegu gutxiren ondorioa. Beraz, hauei ezetz esan zien epaile-taldeak. Burumakur gelditu ziren intsektu hegaldunok.

Aurkezten azken taldea jauzika etorri zen. Kostata batzuk, agudoago beste batzuk: igel eta apo taldea. Arnasa hartu behar izan zuten abesten hasi baino lehen arnasa berreskuratuko bazuten, baina hasitakoan, hura bai lilura, tonu konbinaketa zabala eta bateratua. “Txitxarrekin batera abestuko duzue!” esan zuen aho batez, gero eta handiagoa zen ur-muki putzu zabalean, epaile-taldeak, eta “eskerrak!” hasperen amonak. Aukeratua zegoen abesbatza beraz, eta garaiz iritsiko zirela hitz emanik arratsaldera arte agurtu zuten elkar.



Luhartzak ere lurrazpitik atera ziren eztei garaian arratsean, eta labezomorro, mariburduntzi, ipurtsarde, kakalardo eta zimitzak hunkituta mukizapi banarekin egon ziren ospakizun guztian zehar. Afoniak jota zegoen kilker abesbatza ere etorri zen eta bazter zoko batean pilatu zen, isil-isilik, denaz jabetzeko. Eta epaile-talde mukitsua, oti-berdea barne, harro-harro jarri zen erlauntzaren azpialdean.

Ilunsentian, ortzia guztiz ilundu eta izarreztatu baino lehen, tximeletek dantza polit bat eskaini zieten ezkongai erleei eta ezteiliar guztiei. Ezkongaiak txukun eta zoriontsu etorriak ziren, ezkontza gogoz ospatzera eta denek liluratuta begiratzen zieten. Giro alai zen, hori uka ezina zen. Ipurtargiek bidea argiztatu zutenerako ilunabarra sartua zen. Oraindik ere bero zenez, hosto eta makil intsektuek ekarri zuten freskotasun apurra airea hauspotuz. Hegaz egin zezaketen guztiak ipurtargiek lurretik argiztatu eta argitu zituzten. Bidean barrena egin zuten erlauntzaraino denek, ezkongai eta gonbidatuek, eta bertan, ezkongai erleak bata bestearen ondoan jarri ziren, apo-igelen “kro-kro” zein txitxarren “kri-kri” abesbatzaren abestiekin, eta arkanbele nahiz arrabioen “tok-tok” eta erleen “zzz” orkestraren laguntzarekin. Denek konpenetrazio aparta erakutsi zuten. Afoniak jota zegoen kilker taldeak ere apo-igel eta txitxarren ongi egitea mirestu zuen. Marringoringok zuen batuta.

Ezkontza ezin zitekeen ederragoa gerta eta amaieran, erregina erleak musuak banatu zituen airean, denentzat zirela oihukatuz. Erregina pozkarioz zegoen eta amona mantangorriak lasaitu ederra hartu zuen hori ikusita. Ezkontza bukatu eta handik gutxira, erle bikotea urrunerako hegaldi batean abiatu zen, denen diosala jasoz. Ez zuten ez luzaroan ahaztuko jai hura! Amona mantangorriak agujetekin amaitu zuen ospakizuna, gora eta behera hegan, dena ikuskatuz aritu baitzen, zuzentzeaz gain. Abesbatzan eta orkestran aritutako zomorro denei eskerrak eman zizkien banan-banan, arrakastatsua izan baitzen haien lana, eta hurrengoetarako entseatzen jarraitzeko eskatu zien. Denek abesten jarraituko zutela hitz eman zuten. Gauak aurrera egitean eta laino gainetik zetorren haize freskoak giroa baretu ahala, norbera bere etxera itzuli zen... eta mantangorriak ere atsedean hartu zuen.

Badakizue, beraz. Aurrerantzean, zelaietan oinez zoaztenenean txitxarrak edo kilkerak entzuten badituzue, ezker-eskuin begira ezazue, ezkontza bat gertu izan bailiteke... eta hau horrela bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera bedi Durangoko plazan.





Olerkiak




Paule

Martinez Cerro

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Landako Eskola

Paperezko hegazkina



Hemen abiatzen da
paperezko hegazkina!

Astiro-astiro
Nire bihotzera heltzen da
benetako eskutitza.

Hegazkina irekita
eskutitza zabalik
tximeleta bi airera.

Hitzak hortzera
hitzetatik esaldietara.

Aireak berriro eraman du.

Nire nahia,
berriro etor dadila da,
beste esaldi batzuekin,
eta eskutitzaren magia,
berriro sentitu.

Itxaroten zaitut
hegazkin kutuna!



Olerkiak



Ixone

Asategi Narbaiza

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean

San Jose Jesuitak Ikastetxea

Zergatik ilargi?



Zergatik ilargi
zara gauaren tasun?
Bera bada iluntasun
eta zu argi?

Zergatik ilargi
zara gaueko trumoi?
Gaziaren limoi,
ez al duzu nahi sentitu oskarbi?

Zergatik ilargi
zara negarren gaitz?
Garrasien ekaitz
arima isilen alde basati?

Zergatik ilargi
zara izarren maitale?
Haiek badira suzko ale
nahi al dituzu zilarrez estali?

Zergatik ilargi
zara gorpu bizien distira?
Gorputz isilen desira
bizitza iturrien egarri?

Zergatik ilargi
zara haundia, urruna eta hotza?
Gogorazten didazu heriotza,
nahi al didazu gaua itzali?



Olerkiak




Nahia

Barturen Negro

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailan
San Antonio Ikastetxea

Zure begien bidaia



IL
-19

Ondo gogoratzen dut
zure begirada eta haren mezua.

Ondo gogoratzen dut
zure irria eta haren soinua
baina orain bakarrik nagoela,
faltan dut zure arimaren gozotasuna
eta zure azala nirean sentitzea.

Zergatik joan zinen
galdetzen diot egunero neure buruari
zure begiak iluntasunean susmatzen ditudanean
eta zure irria entzuten dudanean
zu hemen egon ez arren.
Badira urteak joan zinenetik
baina hain zaitut presente!

Zugan pentsatzen dut
oheratu aurretik eta jaiki bezain laster
gure azalen arteko gertutasuna
etortzen zait burura
eta hura berriro sentitzeko
dudan gogoetan pentsatzen nagoen bitartean
zure irudia etortzen zait burura
eta berriro zure begiradan zehar
beste leku batera bidaiatzen dut.

Zer egin dezaket zu ahazteko?
Zure azalean,
zure begietan edo zure irrian
ez pentsatzeko baldin eta egunero
gogoratzen bazaitut nire buruan?
Zer egin behar dudan
aztertzen dudan bitartean
zure begien zehar
bidaiatzen jarraitu nahi dut,
leku berriak ezagutuz eta beharbada
leku haietan aurkituko zaitut berriro.



Olerkiak



Nerea

Irasuegi Moreno

Irabazlea 17 -18 urte bitartekoen sailan
Fray Juan de Zumarraga Institutua

Behinola heriotza
jaiki zen egun batez



Behinola heriotza jaiki zen egun batez
errefuxiatuak ikusi genituen hiltzen
hotzez, penaz, gosez
eta gu isilik gelditu ginen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
berriak entzun genituen
gizonak emaztea hil zuen haserre
dagoeneko hamabost ziren
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
gure lurra akabatzen ari ginela esan ziguten
planetak sukarra zuenez
ipar eta hego poloak urtzen hasi ziren
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
poliziak maleta bat zabaldu zuen
barruan immigrante baten hilotza, betea itxaropenez
eta guk axolagabe, gorputegira eramán genuen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez,
gure aitona-amonak zendu egin ziren
abandonaturik, triste
eta guk zahar egoitzak zer ziren ahaztu genuen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
lurralde pobreetako umeak hiltzen ikusi genituen
gurasorik gabe, laguntzarik gabe
eta guk alegiazko malko bat jausten utzi genuen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
boteretsuenek gure gizartea erail zuten
sentimendurik gabe, askatasunik gabe, etikarik gabe
eta guk diruarekin zer egin zuten galdetu genuen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?

Behinola heriotza jaiki zen egun batez
geure burua itzaltzen ikusi genuen
bihotzik gabe, garunik gabe
eta laguntza eske, lagunik ez genuela konturatu ginen
baina, zer egin daiteke heriotza jaikitzen den egun batez?





Olerkiak



Marijoxe
Azurtza Sorrondegi
Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

Burko gainean



Atsegin dut goizetan argiak esna nazan
loak berriro besarka gaitzan
lan eskaintza bat jaso dezadan
nagiak atera ditzadan
lur heze usaina sudur hazkan
alaba pinpirina aurrean dantzan
pipia nire jirabiran
eta burkoa estutzea nire burupean.

Sinisten dut euriaren onuran
zerga sistemaren arduran
herriko jai ohituran
lanerako gogo azturán
eztarri-eztulerako ezti-uran
zorioneko loguran.

Nire egiten dut
Jainkoarekin harremana
gizarte aztoramena
euskararen bizi-iraupena
proiektuetan murgiltzeko kemena
nire egoskorkeriaren jazarpena
begirunearen hunkipena
zure musurik samurrena
erlearen loreko eztena
lagun zoro ozena
San Ferminetako zezena
MariJaia lerdena
San Prudentzio sabel gizena
Baionako euskal sena
San Sebastian danbor-joleen zoramena
Zuberoako pastoralen sormena
Donibane Garaziko harresi-miresmena.

Ikara dut
trumoien danbada
gainezka doan errekaen durunda
bihotzeko samina
arnasarik uzten ez duen maitemina
jakietan ezkutuko azukre, gatz eta gurina
eta zure mingain arina

Entzuten dut
gure jolasa
plazeraren pausa
gaztetako gaupasa
galerna euri jasa
maiteminaren solasa
bizilagunen nahas-mahasa
labean puztutzen ari den otasa.

Burko gainean ametsa
nire irriken mentsa
gogoz bizi dut bizitza
intriga xumeen baratza.



IL
19



Bertsoak



Maddi

Elortza Mendiburu

Irabazlea 11 -12 urte bitartekoen sailean

Kurutziaga Ikastola

Mundu injustua



Mundua injustua
dela badakigu
baina hori konpontzen
guk zaila daukagu
esfortzu txiki bat ta
zerbait egin dugu
denon artean mundua
alda dezakegu.

Horretarako behar
da elkartasuna
indarra, kemena
eta laguntasuna
esfortzu handia
eta hurbiltasuna
indarra ere asko
behar da laguna.

Pauso txiki ta handiz
osatuz mundua
horretarako beti
zuzena burua
beti ere hor dago
tranpa, amarrua
baina batzutan gorde
behar da amorrua.




Bertsoak



Ander
Sarriugarte Garcia

Irabazlea 15 -16 urte bitartekoen sailean
Kurutziaga Ikastola

Olatuarenak




Iparra topatu nahian
kresaletik kresalera
gazitik gazira baina
ur bizitik ur barera
egunero kikilduta
ilargiaren konpasera
justu heltzen naizenean
altuera bat hartzera
grabitatearen erruz
berriro jausten nahiz behera

Mareak mareatzen nau
ziba bat baino gehiago
nire inguruko dena
erraldoia da zeharo
amaiezin diren urak
ta ni horien esklabo
asperdurak ezin nau hil
baina nireak akabo
inoiz ere ez hiltzera
kondenatuta bainago.

Nahiz urak izaten duen
bere barna hainbat ziklo
olatu bat naiz ni berez
itsasoaren Edipo
ozeanoa eta ni
astroak ta Koperniko
konprenitu dut gauza bat
ta bertan nahi nuke ito
ez baitut bizi nahi baina
biziko bainaiz betiko.

Olatua izatea
da behin betiko kondena
zein da nire oinarria
ta zein nire ondorena?
ta konprenituko balu
norbaitek ni neu naizena
zer dut esperantzatzat ta
berez zein da nire sena
portura heldu nahi nuke
edota lurrundu dena.

Sentitzen dudan guztia
berez hain da erreala
min hartuko nukeela
ni neu suaz erre ahala
eta nahiagoko nuke
desagertu berehala
ezingo baitut zapaldu
inoiz ere lurrazala
olatu handiago batek
bertan irentsi nazala!



11-19

